

26 NOV. 2025

Kritika soziala alboratuta, irakurlea «dibertitzera» dator Jon Arretxe

Jon Arretxek “Txerriak eta loreak” eleberri beltza argitaratu du. Txistor lapurreta batetik abiatuta, Sakana, Gasteiz eta Basauri ditu eszenatoki eta Zuriñe Ruiz de Gordo Down sindromedun emakume indartsu eta zorrotza, protagonista. Emakumeen papera azpimarratzekoa da Inazio Mujika Iraola editorearen esanetan.



ALAIA SIERRA

DONOSTIA



Toure detektibearen sailari atsedena emanda, beste eleberri beltz bat argitaratu du Jon Arretxek Durangoko Azokaren atarian. “Txerriak eta loreak” izenburupean, txistor lapurreta batekin abiatzen da istorioa, Sakanan. Oraingoan, ezagunak dituen tokiak aukeratu ditu: Sakana, Gasteiz eta Basauri.

Atzo aurkeztu zuen Iana Donostian, Erein argitaletxeko editore Inazio Mujika Iraolarekin batera. Azken honek azaldu zuenez, Arbizuko industriagunean gertatzen den lapurreta xumeak «ustekabeko bide ilun batzuk» irekiko ditu eta «pertsوناia arriskutsuen arteko kate kriminala» abiatuko du. Horrela, bere hitzetan «koral» den nobela honetan udaltzainak, txistorgileak, enkargu ilunak egiten dituztenak eta «mafia txikiak» ageri dira.

Beraz, argitalpen berri honetan «etorkin, etxegabe, prostituta edo bestelako biztanle zaugarrien orde, negozio aitorrezinetan diharduten bertoko aberats eskrupulugabeek hartuko dute protagonismoa», laburbildu zuen argitaletxeak. «Ezohiko nobela da, laburra eta pertsonaia bereziz hornitua: Zuriñe Ruiz de Gordo gasteiztar mandatugile bitxia, Gabriel Abrisketa basauriar enpresari ustela, Fermin Bakaikoa arbizuar txistorgile iluna... Harridura, dibertimendua eta ustekabeak ziurtatuta daude», gaineratu zuen.

Hortaz, «kritika sozial gutxien daukan nobela» da “Txerriak eta loreak”, Jon Arretxek zehaztu zuenez. «Nire helburu nagusia irakurlea eta jendea dibertitzekoa izan da -esan zuen-, kritikatik aldentzeko beharretik» abiatu delako.

Pertsonaia nagusia, protagonista, Zuriñe Ruiz de Gordo arabarra da. Down sindromea du eta judoka, indartsua eta «bereziki zorrotza da», aurrerratu zuen Mujikak.

Emakumeek eleberrian duten protagonismoa ere azpimarratzekoa dela esan zuen editoreak, eta, Ruiz de Gordoaz aparte, garrantzitsua da Iratxe ere, mafiosoaren alaba.

Jon Arretxe idazlearen iritziz, pertsonaia «interesanteena» da Ruiz de Gordo, ez duelako inoiz aurkitu horrelakorik nobela beltzetan. Gaineratu zuenez, «badauka potentziala» beste eleberri batzuetarako. Sail baten lehenengoa izan daitekeen honek askatasuna eman dio Arretxeri idazteko garaian. «Kortse bat kentzearen antzekoa izan da», azaldu zuen. Izan ere, Toureren istorioarekin «nahiko baldintzatuta nongoen», baita hizkuntza aldetik ere. Oraingo honetan errazagoa izan zaio Sakanako, Gasteizko edo Basauriko euskaran erregistroak ongi bereiztea. «Oso gustura idatzi dut nobela hau», esan zuen Donostiako aurkezpenean.

Gustura egin badu ere, atzeko lan handia izan du idazten hasi aurretik. Ideia idazle kanariar batek eman zionez geroztik, dokumentazio lana egin behar izan du; txistorgintza ofizioaren inguruan ere bai, baina batik bat Down sindromedun pertsonen ezaugarriak ongi ezagutzeko. Horretan lagun izan du Paz Velasco kriminologo espainola.

LAPURRETAK

Txistor lapurreta batekin abiatzen da istorioa. Arbizuko industrialdean gertatzen den lapurreta xumeak «ustekabeko bide ilun batzuk» irekiko ditu eta «pertsوناia arriskutsuen arteko kate kriminala» abiatuko du.

PUBLICIDAD



PUBLICIDAD